

Irakasle inklusiboen hasierako prestakuntzan hausnarketa prozesu kolaboratiboen erraztailetzarako gako eta estrategiak

Tesiaren egilea: Nerea Agirre Garcia

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea (MU)

Saila/Institutua: Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan

Doktorego-programa: Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan

Jakintza-arloa: Hezkuntza

Tesi-zuzendaria: Agurtzane Martinez Gorrotxategi eta Nagore Iñurrategi Irizar

Tesiaren laburpena:

Tesia irakasle inklusiboen hasierako prestakuntzaren eremuan kokatzen da, eta ikerlana komunitate zientifikoak jasotzen duen lerro batean integratzen da, non irakasle inklusiboaren profila ezaugarritzen eta balioesten den. Lan honek bere ekarpena egin nahi du lerro horretan, irakasleak bere jarduna modu kritiko eta jarraituan aztertzeiko gaitasuna garatzea helburu duen modu, pedagogia-irizpideetan oinarrituta eta ikasleen beharretara egokitutako erantzun konprometitu eta eraldatzaileak eskaintzeko.

Literaturak azpimarratzen du praktikaren gaineko hausnarketak konpetentzia pertsonal eta profesionalaren garapenean duen garrantzia, eta hausnarketa-prozesuen dimentsio sozialak, besteekin elkarriketa eta elkarrekintza sustatuz, esanahi berrien eraikuntza ahalbidetzen duela. Hala ere, oraindik beharrezkotzat ageri da elementu erraztaileak identifikatzea, praktikaren gaineko hausnarketa eta esanahi partekatuen eraikuntza prozesuak hobeto ulertzeko.

Ingurumari honetan, tesi-lanean kasu-azterketa kualitatiboa egin da, oinarri soziokulturetan ardaztuta. Aztertu dira 4. mailako Hezkuntza Berezikoko Practicum mintegietako 12 saio, zeinetan 51 ikasle eta 8 tutorek parte hartu baitute. Mintegietara ikasleek ekarritako 31 egoera praktikoren gainean egin diren hausnarketa-prozesuak aztertu dira. Analisia egiteko, irakasle, ikasle eta edukiaren arteko harremana erdigunean jarri da. Horrenbestez, analisi osagarriak egin dira: hausnarketa tematikoaren analisi, elkarrekintzaren azterketa eta mugimendu dialogikoen identifikazioa. Analisi bakoitzaren emaitzak baliatuz, azterketa integrala burutu da.

Emaitzek erakusten dute hausnarketa-prozesu kolaboratiboak errazteko gako nagusiak honakoak izan daitezkeela: egitura horizontalak, eta pertsona guztien ahotsak kontuan hartzea; konfiantza eta segurtasun emozionaleko giroa ziurtatzea; eta esanahi partekatuen eraikuntza-prozesuak modu malgutan kontzeptualizatzea. Honek egoera praktikoen analisi iteratiboa egiteko aukera ematen du, ikasleek ezagutzen dituzten testuinguru eta esperientzietatik abiatuta eta horren gainean zentzua berreraikiz.

Lan honek ekarpena egiten du Practicumaren eta mintegien berrinterpretazioan. Espazio horiek printzipio dialogikoetan eta dimentsio sozioemozionalarekiko sentikortasunean oinarritzen direnean, garapen profesionalerako ikaskuntza-komunitate demokratiko eta konprometituak sortzea ahalbidetzen dute. Halaber, lanari esker dimentsio kognitibo eta emozionalak artikulatzen dituzten mugimendu dialogikoak identifikatu dira, eta ekarpen originala eskaintzen dute etorkizuneko ikerketa gidatzeko eta irakasleen prestakuntzara transferitzeko. Izan ere, lanak argitara ekarri du prozesu kolektibo, kokatu, sostengatu, esanguratsu, eraikitzaile eta kritikoak sustatu nahi badira, osagai hauek ezinbestekoak direla: modu ezberdinetako parte-hartzea bermatu eta balioestea; ezagutza mota ezberdinak aitortzea; partaideen ekarpenen arteko loturak sustatzea; eta norbanako nahiz taldearen beharretara egokitutako laguntza eskaintzea.